

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Auritz

Aurkibidea

Udalerria: Auritz

Sarrera



Auritz Zangozako merindadearen ipar-ekialdeko muturrean kokatzen da Nafarroa Behereko mugatik gertu. Herria, N-135 errepidean dago Iruñea-Luzaideko norabidean. Iruñea eta Auritz udalerrien arteko autobus zerbitzua dago astelehenetik ostiralera. Herriak Luzaide eta Orreagarekin egiten du muga iparraldean; Orbaizeta eta Garraldarekin ekialdean; Artzibarrekin hegoaldean; eta Erroibarrekin mendebaldean. Herriaren inguruko mendirik altuenak Mediaundi (1.218 m) eta Menditxuri (1.201 m) dira.

- **Biztanleak:** 260
- **Euskaldunak:** %29,8

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **8**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **6**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Margarita Irigarai Errea (1908)

Auritzen jaioa 1908an. Gurasoak biak bertakoak zituen.

Juanita Larrañeta Iturri (1904)

Auritzen jaioa 1904an. Gurasoak biak aezkoarrak zituen, gaztetan Auritzera joanak. Bere ahizpa [Micaela](#)rekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1985ean.

Micaela Larrañeta Iturri (1900)

Auritzen jaioa 1900ean. Gurasoak biak aezkoarrak zituen, gaztetan Auritzera joanak.

Presentacion Urtasun (1880)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 33 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: hegoaldeko goi-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.238

Simon Urtasun (1882)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Erretorea zen eta 31 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: hegoaldeko goi-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.239

Joakin Zilbeti Arostegi (1910)

Auritzen jaioa 1910ean. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Orbaitzekoa (Aezkoa).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Orreagatik Garrairdara bitartean

- **Hizlaria(k)**: Urtasun, Presentacion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: AUR-002/001
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:02
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Auritz inguruko herrien eta oihanen berri ematen digu ibilbide bat oinarri duela. Honako aipamen hauek egiten ditu hainbat azalpen emanez: Orreagatik Auritz eta Aurizberrirako bidea, bertako lur

emankorrek, Erro ugaldere (ibaira) doazen urak, Berragu oihaneko leizeak, Garraldako etxeak...

Transkripzioa

Orreaga dago oianez inguraturik, lbañeta deitzen den mendi baten pean. Orreatik Auritz eta Aurizberri aldera goazilaik ikusten da zelai eder bat, zeintan egoten dire bei, beor, aunts eta ardiak belar goxo ura jaten. Iruskia atra eta bereala sartzen dire zelai ontaik oianera. Erran tugun iru erri oiek arras onak dire udako, zerengatik eztu berotzen bertze leku zenbaitetan bezala, baña neguan zenbait urtez, iten du elur anitz eta izotz gogorrek egoten baitire iru edo lau ilabetez lurra ezin ikusiz.

Aurizberrin diren ur guziak sartzen dire zilo batzurretan andik, errateuntenez atratzen dire Erroko ugaldere. Erri onen ondoan bada oian bat deitzen baita Berragu. Leku ontan badire leze itsusgarriak, oetan erortzen dena ezta nolanai atrako. Leze oietaik bat deitzen da Leze motz, baña ezta deitzen den bezala, da fiarki luzea. Arri bat botatzen delaik, zolara joan orduko pasten da denbora anitz. Erri oetan nola baitire etxeak olez estaliak, anitz aldiz su lotu izan da, eta jangoikoak daki zenbat etxe erre izan diren; Garraldan bakarrik erre zire, orai duela amabortz urte iruetan ogei etxe pastuik; orai teilaz estaltzen tuzte etxeak, eta olaxen eztire erretzen lenago bezanbat etxe.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Orreagako Ama Birjina

- **Hizlaria(k):** Urtasun, Simon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** AUR-003/001
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:11
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Orreagan Ama Birjina agertu zen eta inguruko herriek debozio handia dute Ama Birjinarekiko. Nafarroatik eta mugaz bestaldetik jende asko batzen da bertan Ama Birjina agertu zeneko urteurrenean. Ospakizun horien berri eta herri bakoitzeko herritarrek duten parte hartzearen berri ematen digu.

Transkripzioa

Orreagan agertu ze Ama Birjina, orai duela anitz urte. Andik onata, Orreako inguruko erriak debozio aundia dute Ama Birjina oni. Urte oro, Ama Birjina sortu zen egunean iten da Orreako elizan funzone aundi bat. Ala Franziatik nola Nafarroatik joaten dire Orreara milaka jendeak ikustera Ama Birjina eder ura eta eskatzera bear tuzten graziak, ala gorputzeko nola arimako. Maiatzeko ilabetean Salvatore ondoko astean iten dire bortz egunez prozozioak Orreako Ama Birjinari Elizara. Astelenean joaten da Aurizko erria. Asteartean Luzaidekoa. Asteazkenean Artzibartarrak. Ortzegunean Aurizberrikoak eta orzilarean Erroibartarrak. Artzibarko eta Erroibarko prozozioan joaten dire, guti gorabera, egun mutil, gurutze aundi batzurrekin bizkarrean. Zenbait errietaik bada Orreara bortz eta sei ordu, eta alare bide guzian erematen tuzte erran tugun gurutze oek. Ori eztela asko joaten dire errezatzen bide guztian. Jende oei galditen badaegu: Zertara zaazte gurutze aundi oekin eta urtutzik alako bide luzean? Errain dute: Goazi

Orreako Ama Birjinaingatik, arras maite baitugu, eta etzaigu sobera iduritzen iten dugun penitentzia, alako Ama maitea ikusteatik eta bere aitzinean egoteatik. Orreako elizan, prozozioak sartzen direlaik [salbea kantatzen da].

3. Aisia

3.1. San Juan sua eta lelo gaiztotua Auritzen

- **Hizlaria(k):** Larrañeta Iturri, Micaela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** AUR-004/001
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juan bezperan sua egiten zuten; gainetik salto egin eta zer esaten zen.

Transkripzioa

- Hemen San Juan bezperan egiten zen sua?
- Bai.
- Eta gero gazteek-eta egiten zuten jauzi haren gainetik?
- Bai.
- Eta zer erraten zuten?
- Hori ez dakit /eztakit/. A! bai, bai, bai. Badakizu zer erraten zuten?
- Hori nahi dut jakin.
- "Sarna Gipuzkoara ta garia Navarrara".
- Bai, e?
- Bai.
- Gipuzkoara, e?
- Hori erraten zuten.
- Zergatik?
- Ez dakit /eztakit/.
- Ez duzu jakinen, ez... Eta hori bertzerik ez zuten erraten?
- E?
- Hori bakarrik?
- Hori...
- Gipuzkoarrak gaixtoak izain ginen.
- Karo, nik uste baietz. Ta orain nola [zaozte]?
- Onak, eta zintzoak.
- Bai, zaharrak bai onak, gu zaharrak bai onak.

3.2. Aurizko "Tribuli"-aren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Zilbeti Arostegi, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** AUR-006/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Aisia » Kultura » Musika

Aisia » Jai-giroa » San Juan

- **Laburpena:** Auritzen San Juan bezperan suak egiten ziren. Gero, gainetik salto egiten zuten. "Tribuli" kanta eta dantza ere egiten zen. Inguruetako musikariak.

Transkripzioa

- Aitu dut hemen eee.. San Juan bezperan edo, San Juan bezperan...
- San... san Juan bezpera?
- Bai, egiten dela sua, ez?
- Sua, bai.
- Eta jendeak-eta salto eiten du suaren gainean eta?
- Bai.
- Zer erraten du salto egitean?
- Zerbait erran?
- Ez, zerbait erraten du jendeak suaren gainean salto egitean?
- Ez.
- "San Juan bezpera, sarna fuera" edo?
- A, ez dakit.
- Ez dakizu, zerbait erraten den ez, ez dakizu, ezta?
- [...]. Suak, bakizu, iten dire bat, bida, hiru sua herri guzian e!, beti leku berean. Hola, sua. Ta eiten dute etxeoak. Eta jendea ya pasten da, ta kaso puxkat, ilara, bakizu, hola saltatzen aldi bat. Sartzen bada kontrako bat, pum! Bai, hori pastu da ta gogor agarratu zangotik eta atrako, atra du suatik, baina [sokartu], kaso puxket ein behar da ez dutela /eztutela/... Ta hori, víspera de San Juan, las hogueras.
- Nik aitu dut hemen, Auritzen, gazteek -ez dakit ihautetan edo noiz-kantatzen edo erreztatzen dutela zerbait.
- Tribuli?
- Hori, hori izein da!
- Aaaa el tribuli!
- Hori noiz da?
- Hori? Eee... hori...
- Hori noiz da? Ihautetan?
- Egun hortan!
- San Juan bezperan edo...?
- Bai! bezperan, hori! Suak eta dantz hori, bezperan.
- Orduan dantza bat da?
- Bai.
- Dantza bat da. Eta zer erraten dute? Nola da tribuli hori?
- Tribuli, el tribuli.
- Nola da?
- Nola da?
- Nola kantatzen dute?
- Ez, musikoak; sonatzen du "al pasar del tribuli el tribuli", ta bertzeak ayuntamientoa sartzen da "cara a cara" jarririk ta ayuntamiento, eso, dantzan, gazteak! Gazteak. Eta gazte [horietan] bada bat "mayordomo" erraten da, ta lehenbixikoa ateratzen da mayordomoa, eta gero berriz denak, denak dantzatu.
- El tribuli da. Eta badu letrarik?
- Ez dakit /eztakit/, "al pasar del tribuli, el tribuli, el tribuli, al pasar el tribuli la mañana de San Juan, la noche de San Juan".
- Hori bertzerik ez?
- Ez, ez du bertzerik.

- Hori bertzerik ez, e?
- Ez, ez du bertzerik. Hori, badakizu, lehenagoko kostunbreak, klaro; por allo etortzen da musikoak, ta lehenago badakizu ze [izein zirian], seguramente... nola izaten... txistu.
- Txistu, bai.
- Txistu. Lehenagoko txistu etortzen zen Urepeletik [...] bat [...], baina hara ehun año, urteak!
- Ta herrian ez ziren txistulariak?
- Ez, ez, ez dut...
- Ta Mezkiritzen edo Aurizperrin edo ez da izan?
- Aurizperrin bai bazen bat, bazen, bada, ni oroitzen naiz, bai, Silverio, Aurizperrikoa. [Gazteinatik] hemen herrian ikusi dut nola [...]... gitarra.
- Gitarra ta...
- Gitarra, hori bai, txistularirik ez.
- Silverio Villanueva izain zen?
- Villanueva.
- Aitu dut Aurizperrin bazegoela Silverio famatu bat.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. "Izar eder bat degu" gabon-kantaren hondarrak Auritzen (AUR-004/002)

Eguberrietan kantuan ateratzen zirenak nola joaten ziren. Gabon-kanta.

2. Aurizko San Juan bezperako "Tribuli"-a I (AUR-005/001)

San Juan bezperan sua egin eta gaineratik saltatzeko ohitura. "Tribuli" delakoa dantzatu eta abesten zen.

3. Aurizko San Juan bezperako "Tribuli"-a II (AUR-005/002)

San Juan bezperan sua egin eta gaineratik saltatzeko ohitura. "Tribuli" delakoa dantzatu eta abesten zen.

4. Errege-egunaren bezperako zintzarri-hotsak Auritzen (AUR-005/003)

Errege egunaren bezperan kaleetan zehar zintzarria joz ibiltzeko ohitura zegoen Auritzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com